


04

Dimentsio politikoa eta genero ekitatea
Herri Indigenekin lankidetzan,
Mugarik Gaberen apustua



MUGARIK GABE

2  Garapenerako Lankidetzeta GKE den Mugarik Gabetik (mundu mailako) globala eta interdependentea den garapenean sinisten dugu. Giza garapen osoa lortu nahian, hau da, emakume, gizon eta herrialde desberdinen artekoa zein datozen belaunaldientzat iraunkorra izango dena, urko dugun ingurutik garatzen dugu lana, gero gure mugatik zabaltzen dugularik.

ARABA

"Itziar" Elkarteen Etxea - Zalburu Plaza z/g, 01003 Vitoria-Gasteiz

araba@mugarikgabe.org

Tel.: 945 277 385 / 656708617

Fax: 945 277 385

BIZKAIA

Vicente Garamendi taldea, 5 P.B. 48006 Bilbao

bilbao@mugarikgabe.org

Tel.: 94 415 43 07 / 94 415 48 21

Fax: 944 166 796

GIPUZKOA

Katalina Eleizegi kalea 46, behea, 3, atea 20009 Donostia

gipuzkoa@mugarikgabe.org

Tel.: 943 445 977

Fax: 943 445 977

DIMENTSIO POLITIKOA
ETA GENERO EKITATEA
HERRI INDIGENEKIN
LANKIDETZAN,
Mugarik Gaberen
apustua





Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Internazionalela (CC BY-NC-ND 4.0)

Dokumentu hau Creative Commons lizentziapean dago. Edukia libreki zabaltzea, kopiatzea eta birbanatzea baimentzen da edozein bitarteko edo formatutan, beti ere, egiletasuna aitortzen bada. Ezin da erabili xede komertzialarekin, nahastu edo eraldatu egiten bada edo materiala oinarri hartuta sortu egiten bada, ezin da eraldatutako materialik hedatu, ezin da lizentziak baimentzen duena legalki burutzea mugatzen duen neurri teknologikorik edo legezko akaberarik erabili.

Lizentzia osatua: https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/deed.es_ES

"Feminista indigena naizenez nire kulturaren oinarri filosofoak berreskuratu eta XXI. mendeko errealitatera ekarri nahi ditut, hau da, nire kulturatik atsegin ez dudana kritikatu baina bere parte izateaz arro sentituz. Feminismo indigena, niretzako, printzipio batetik habitzen da; emakumeak gara eta iraultza egiten dugu komunitatean formatzen den pertsona independente bat izateko, besteei eman dezakeen pertsona bat baina bere buruaz ahaztu gabe"

Alma López, quiché zinegotzia

1. Sarrera



Ezkerrak azkenengo hamarkadetan emandako eztabaidetan iraunkorki presente egon den galderak, garapenerako kooperazioa bezala izendatzen den horretan korrontearen kontra lan egitearen –teorizatu eta praktikara eramatearen– egingarritasunari buruz itauntzen gaitu.

Kasu gehienetan galdera horren erantzuna negatiboa izan da. Eta horren oinarrian, esparru honetan lan egiten duten erakunde guztiak sistema neoliberalaren aurka dauden mugimendu politiko eta sozialen despolitizaziorako sortu diren erakundeak direla uste duen orokortze eta ildo politikoa dago. Hala ere, eta errealtate hori aitortuta, orokortze horretatik aldendu eta erakunde hauetako parte batek jendartearen errotikako eraldaketa prozesuen alde iraunkorki egindako lana aztertuko duen analisi sakonago bat egitea beharrezkoa da. Guzti hori, nola ez, aldaketa erreal horien protagonista izan behar diren oinarri sozialei eskaini behar zaien laguntza eta babesetik abiatuta; iparra eta hegoa delakoaren herrien eta

mugimendu sozialen arteko kooperazioaren eta elkartasunaren dimentsio politikoarekiko egiazko konpromisoan sustengatua.

Berreskuratu beharreko dimentsio hori da lerro hauetan era labur eta zehatz batean aurkeztu nahi duguna, gure jardueren lehenengo lerroan jarri ahal izateko ondoren. Horretarako, garapenerako kooperazioa delakoaren kontzeptu orokorrak aintzat hartuko ditugu lehenik. Ondoren, jarduera politiko beharrezko hori eredu hartuta, herri indigenen eskubide indibidual eta kolektiboen defentsarako lan politikoaz arituko gara. Zergatik? Herri hauetako mugimendu antolatua sistema berrikusteko, eta sistema bera justuagoak eta bidezkoagoak diren jendarteetara errotik eraldatzeko parametro eta postulatatu ideologiko berriak planteatzen ari delako.

Lan guzti horretarako, kooperazio eta elkartasun lanaren errealitate espezi-fiko batetik abiatuko gara, Euskal Herrikoa hain zuzen ere; Europako bazter txiki batean kokatzen den herri txikiarena, aniztasunean bereizi eta berezko identitate, presentzia, eta elkartasun historia luzea duen herrian.

1. Zerk zuzendu behar du gure lana? Planteamendu nagusiak



Ezkerreko postulatueta kokatzen diren gobernu kanpoko kooperazio eta elkartasun erakundeen balizko definizio bat ondorengo hau izan daiteke; egiteko nagusi bezala, pertsonen garapen integralerako eskubidea, emakume eta gizonen artean zein herri ezberdinen artean bidezkoa izango den eta planetarekin zein etorkizuneko belaunaldiekin jasagarria izango den garapen eredia sustatzea duten erakundeak.

Erakundeen helburuak zehazten dituzten bestelako definizio orokorragoetatik ziurrenik oso hurbil dagoen definizio hau, ezkerreko erakunde hauetan garapena eta garapen hori ulertu eta praktikatzeko dagoen modu ezberdinen ondorio da, garapena herrien eta herrialdeen arteko elkar menderotasunik gabe eta era global batean ulertzeko eta praktikatzeko duten modu ezberdinaren ondorio. Era berean, definizio hau, norbanakoen zein kolektiboen eskubideak aldarrikatu ez ezik, eskubide hauek errespetatu eta gauzatuko diren eta guztiontzako justuagoa izango den

mundu baten nahikariak gidatuta egiturazko eraldaketa pertsonal, sozial, politiko eta ekonomikoa lortzeko behar-beharrezkoak diren ekimenak aktibatzeko beharrezkotasunaren ondorio da.

Helburu handi hauek lortzeko bidean, Hegoaldeko eta Iparraldeko bestelako erakunde eta mugimendu sozialekin batera egin beharreko bidean hiru lan-esparru nagusi definitzen ditugu lan-tresna beharrezko bezala:

- **Eragite politikoaren** esparrua; sistema politiko eta ekonomiko neoliberala zalantzan jarri eta alternatibak sortzen dituzten Hegoaldeko eta Iparraldeko plataformak, aliantzak, sareak eta aldarrikapen espazioak indartzea eta euretan parte hartzea.
- **Eraldaketarako hezkuntzaren** esparrua; garapen eredu kapitalista eta patriarkal honen kritikatik abiatuta, desberdintasunaren kausak eta ondorioak ezagutzeko jendarteak duen eskubidean oinarritutako hezkuntza sustatzea, eta kausa eta ondorio horiek ezagutzeko jendartea behin betiko aldatu ahal izateko beharrezko diren ekinbideak abiatzeko baldintza delako.
- **Nazioarteko kooperazioaren** esparrua; egiazko justizia eta berdintasun soziala lortzeko ezinbestekoak diren eraldaketak defendatzen dituzten erakundeekin elkarlan prozesuak lehenesten (erakunde feministak, herri indigenak, kooperatibak, sindikatuak...).

Baina hau guzti hau ez da kontsekuentea izango, praktika hauekin batera, barne mailan erakunde hauetako kideen artean hainbat balio sustatzeko lan egiten ez bada; ondorengo balio hauek besteak beste:

- justizia, genero-ekitatea, aniztasun kulturala, eta (pertsone guztien) parte hartze horizontala erakundearen barne-berdintasun adierazle bezala;
- subiranotasun eta askatasun pertsonal eta kolektiboa pertsonaren eta jendartearen garapenerako bide bezala;
- koherentzia, elkartasuna eta elkarrenganako laguntza justizia lortzeko ezinbesteko alderdi bezala;
- eta ingurugiroarekiko begirunea pertsonen eta ingurunearen arteko harremanaren oinarri bezala.

Gidatzen gaituzten funtsezko oinarrietako bat ondorengo esaldian laburbildu dezakegu: "proiektuak egin beharrean, prozesuak babestea". Eta printzipio hau ez dugu garapen proiektuen eta bere aplikazioaren esparruan soilik ezartzen. Aitzitik, prozesuek, nazioarteko esparruan, estatu mailan edo tokikoan garatu beharreko eragite-politikoari dagozkion hainbat jarduera elementu barne-biltzen dituzte; eraldaketarako hezkuntzari dagozkionak, edota Hegoaldeko herrialdeetan abian jarri asmo diren jardueri dagozkionak. Ezin ahaztu dezakegu prozesu hauek barne funtzionamenduan, eraketa lanean eta prozesuaren beraren indarketa politikoan isla izan behar dutela.

Horrela, prozesua eragite esparruen arabera antolatu beharra dago maila sozialean, politikoan eta ekonomikoan; pertsona, kolektibo eta herri ezberdinen arteko elkartasun eta eskubide ikuspegi global batetik beti ere. Proiektuak beharrezkoak dira biztanleria jakin bat pairatzen ari den egoera negatiboa arintzen dutelako, baina ezin gaitetzke egoera horiek arintze-



ra mugatu, biztanle multzo horren protagonismotik abiatuta, egoera horiek eragiten dituzten kausak errotik aldatzera jo behar dugu. Eta hau esparru desberdinetan garatutako ekinbide paraleloen bitartez soilik erdietsiko da; esparru politikoan, ekonomikoan eta sozialean egindako lanaren bitartez. Gauzak horrela, proiektuak eta bestelako ekinbideak epe erdi luzera jendar-tea eraldatzea helburu duten ondo definitutako prozesuetan kokatu behar dira; justizia soziala, eskubideen aitortza eta gauzatzea, aberastasunaren banaketa, ekitatea eta bestelako baloreak jasoko dituen jendarte eredu berri baterako prozesuetan. Bestela ez da eraldaketarik egongo eta litekeena da proiektua bere ardurei iskin egiten dieten hirugarrenei (estatuari) dagozkien eginbeharrak ordezkatzera mugatzea, hirugarren horrek bere erantzukizuna saihesten duen bitartean bere betebeharrak nazioarteko kooperazioak bete ditzan.

Hau guztiagatik, behar-beharrezkoa da epe luzerako eraldaketa soziala bilatzen duten prozesuak babestea. Herrialde eta sektore sozial guztietara zuzendutako praktika izan behar da hau, baina indar handiena bestelako eredu sozial eta politikoak sortzeko baldintza egokienak dituzten prozesuetan egin beharra dago; Amerikako kontinenteari dagokionean, Kuba, Venezuela, Ekuador, Bolivia eta beste herrialde batzuk ditugu gogoan. Baina lan hau tokiko esparruan kokatzen diren prozesuetan garatzen badugu ere, horizonte zabalagoetan ere eragiteko ahalegina egin beharra dago, hala nola nazioarteko esparruan. Ia ezinezkoa da adibidez eskualde batean bizi den ekitate falta egoera bat eraldatzea baldin eta harreman horiek estatu mailan zein nazioartekoan eraldatzeko ahalegina egiten ez bada.

Azken urte hauetan helburu nagusi bezala "pobreziaren aurkako borroka" -ren printzipioa ezarri da kooperazio politika guztietan. Ez gara orain hori eztabaidatzen hasiko, bere mamian ados baikaude printzipio horrekin, oinarrizko beharrizan ezin zuzituzko bezala ulertzen dugulako pobrezia. Hala ere, esperientziak eta kooperazio zein elkartasun planteamendu politikoek bi printzipio gehiago nabarmentzera bultzatzen gaituzte: Eskubideen ikuspegirik gabe eta elkartasunik gabe pobreziaren aurkako borrokak indarra galtzen duela uste dugu, sarri askotan eduki eraginikorrik gabeko postulatu hutsetara mugatzen dena.


Egiazko eraldaketa sozial, politiko eta ekonomikoa bultzatzen duten prozesuak mailaz-mailakakoak, progresiboak eta epe-luzerakoak izan behar direla pentsatzen dugu. Helburu hori betetzeko garapenerako estrategien bitartez egiten den lanak, beharrizan espezifikoko asetzeaz gainera, biztanleriaren aktibazio eta ahalduntze sozialerako dinamikak sortu behar ditu, ekitatea, kolektibotasuna, elkartasuna eta justizia bezalako balioetan oinarritutako alternatiba



zehatzen bitartez. Baina guzti horren gainetik pobreziaren ikuspegi hutsaren aldean eskubideen ikuspegia da lehenetsi behar dena, eskubiderik ezean pobrezia areagotu egiten delako, eta beraz, eskubideak aitortu eta hauek gauzatzeko beharrezkoa den oinarria egituratu ahala pobrezia arintzen delako.

Beste alde batetik, planteamendu honek herri eta kolektibo sozialak eraldatze eta kooperazio prozesuen protagonista bezala aitortzen ditu; euren artean zein kanpokoekiko elkarrenganako harreman justu eta simetrikoen bilaketan subjektu aktibo bezala aitortu ere. Era berean, hau guzti hau ezaugarri berdinak izanik herri eta pertsona guztientzako eskubideak bermatuko dituen ere-



14 

du sozial, politiko eta ekonomikoetara lekualdatu beharra dago. Garrantzitsua da lerro hauetan autokritika bezala zehaztea, batzuetan, printzipio hauek defenditzen ditugun pertsoneri ere zaila egiten zaigula aipatzen genuen protagonismo horrekiko begirune hori mantentzea. Gehiegitan eraldatze eta aldaketa prozesuei agertu nahi diegun babesaren eredu, teoria eta eragiteko moduen inposizio batean bilakatzeko arriskua dugu -Hegoaldeko bertako ereduak ordezkatzera iritsiz-, eta batzuetan muga hori gainditu ere egiten dugu.

Ikuspegi honetan garrantzi handia duen bigarren elementua elkartasun kontzeptuarena da; Kooperazioaren azken urteotako historiak elkartasuna bere alderdi politikoenean ulertzera behartzen gaitu. Laguntza, asistentzialismoa eta errukia bezalako beste kontzeptuak gaindituz.

Bizitza duin baterako eskubidetik abiatzen bagara, eta duintasuna pertsona bera -gizon eta emakumeak- definitzen duen ezaugarri bezala ulertzen badugu, orduan elkartasuna herriek eta pertsonak pairatzen dituzten injustizia etikoen, politikoen, sozialen, ekonomikoen edo etnikoen aurrean sumintzeko eskubidea eta betebeharra dela esango dezakegu. Baina sumindura kontsekuentea (elkartasuna) ezin da sentimendu huts bat izatera mugatu, harago eraman beharra dago. Egoera hauen eta euren kausen, zein egoera horien aurrean izan beharreko jarreraren ezagutzak sakona eskatzen du, injustiziak sortzen dituzten kausa sakon eta egiturazkoak deuseztatzen zuzenduta egon behar den jarrera da sustatu behar duguna. Eta printzipio hau berdin ezarri behar da Hegoaldean zein Iparraldean. Horregatik, jendarte zibilaren protagonismoa abiatuta, elkartasun printzipioa aldarrikatzen dugu garapen lanean, "beste" pertsonaren lekuan jartzeko gaitasuna, egungo sistemaren eraldaketa prozesuak eragingo dituzten ezagutzak, identifikazioak eta ekinbideak artikulatu ahal izateko elementu beharrezko bezala.

2. Nazioarteko kooperazioa eta elkartasuna herri indigenekin.



Azken hamarkada hauetan batzuetan sektorialak bezala definitu diren zenbait mugimendu berri sortu dira, justuagoak eta bidezkoagoak diren jendarteak sortzeko parametro ideologiko berrien ekarpena egin dutenak. Era berean, ezkerrean planteamendu politikoentzat ere historikoki ikusezinak izan diren eta aintzat hartu ez diren eskubide sorta bat ere aldarrikatzen dute. Azken urte hauetan mundu mailan presentzia handia izan duen mugimendu hauetako bat, herri eta erakunde indigenek eragin dutena izan da. Indigenek herri bezala dituzten eskubideak mahai-gaineratu dituzte, bai eta desberdinak izateko eskubidea eta euren prozesu politiko, sozial, ekonomiko eta kultural propioen bideragarritasuna ere. Euren iraunkortasunak erresistentziazatik euren alternatibak gauzatzera eraman ditu, eta nazioarteko komunitatea ezarritako sistemaren oinarri ukiezinak berrikustera behartu dute. Horrela, eskubide kolektiboen existentzia eta gauzatzea mahai-gaineratu dute, bai eta estatu nazioaniztunak bezalako artikulazio berrien gaineko eztabaida ere. Testuin-

guru honetan hain zuzen ere ari gara herri indigenekiko elkartasuna eta kooperazioa, eta indigena bezala zor zaizkien eskubideen aitortza eta gauzatze atzerazinerako lana berrikusten.

16 

Jarrera handiustea izan daiteke indigena ez den erakunde bat herri indigenekin lan egiten espezializatutako erakunde bezala definitzea, kasu honetan espezialista bakarrak herri indigenak eurek izan daitezkeelako. Definizio honek etnozentrismo apur bat islatzen du berriz ere, mendebaldeko kulturaren fase guztietan nagusi izan dena hain zuzen ere; azterketa zientifikoe-tatik hasi, eta euren historiako garai ezberdinetan nagusi izan diren ideologia ezberdinetaraino. Horrela, mendebaldean ohikoa izan da "...zerbaitetan aditua" izendapena beste kultura, herri, tradizio, erlijio, filosofia eta norberarenak ez diren beste ezagutzei buruz hitz egiterakoan. Zentzu horretan, elkartasun eta kooperazio erakunde bakar batek ere ez luke bere burua "herri indigenetan espezializatutako GGKE" bezala izendatu behar.

Baina horrek ez du esan nahi erakunde hauek herri indigenen eskubideen babes eta laguntzarako ekinbide ildo espezifikoak ireki ezin dutenik eta ireki behar ez dutenik. Aurreko mendeko 90eko hamarkadaren hastapenetatik, Mugarik Gabek Guatemala, Panama, Kolonbia, Ekuador eta Bolivia bezalako herrietako erakunde indigena ezberdinekin lan egin du. Nekazari erakundeak, lurrik gabekoak, emakume antolatuenak... horiek guztiekin ondo baino hobeto ikasi dugu kooperazio lanari eman behar zaion balio politikoa zein den; proiektuen beharrezkotasunetik harago joan, eta prozesuen ezinbestekotasu-nera iristearen beharra herrien eskubide kolektiboen defentsarako konpromi-so politiko argiak hartuz. Ezin daitekeelako herri batentzat kulturalki egokia den hezkuntza baten ezarpenaren alde lan egin, ez badira gatazka armatu bat sufritzen duen herri horretan gertatzen diren pertsonen eskubideekiko urra-

ketak era argi batean salatzen; komunitate batek duen osasunerako eskubidea ezin defendatu daiteke, enpresa farmazeutikoek euren ezagutza tradizionalak lapurtzen dituztela ahaztuta; nekez defenda daiteke herri indigena baten identitaterako eskubidea sufritzen duten baliabide naturalen espoliazioa eta lurraldearen lapurreta salatu gabe, horiek baitira azken finean euren identitatearen egiazko oinarria.

Gauzak horrela, munduko gainontzeko herriek bezala indigenei ere herri izateagatik zor zaizkien eskubideen aitortzaren defentsaren alde lan egiten den bezala, kulturalki ere egokia den hezkuntza eredia praktikan jartzeko ekimenak babestu behar ditugu, komunikabideen esparruan ahalduntzea bilatuko dutenak, erakundeak sendotzeko balio dutenak, genero-ekitatea helburu dutenak... Horrek esan nahi du, herri indigenen eskubideei zuzenean edo zeharka eragiten dieten erabaki guzuetan –izan hauek tokikoak, estatu mailakoak edo nazioartekoak- erakunde eta herri indigena hauen presentzia bermatu beharra dagoela. Era berean, instituzioei ere eskubide hauen aitortzarako presio politikoa egin behar zaie, eta era berezi batean, posible den heinean, gure jendarteetara ordezkari indigenen hurbilketa bultzatzea, gure jendarteetan ere euren egoerarekiko kontzientzia kritikoa handitzeko.

Beharrezkotzat jotzen dugu herri indigenekiko ziklo kolonial edota paternalistarekin amaitzea eta herri horiek euren garapen soziala, ekonomikoa, politikoa eta kulturala erabakitzeko teorian eta praktikan duten eskubidea aitortu eta gauzatzea; bai eta euren bizimoduaren eta lurraldearen arabera aurrera ateratzen dituzten ekinbideak lagunduko dituzten tresnak ahalbidetzea ere.

Baina herri indigenen mundu mailako egoerari buruz hitz egiteak gure jendarteetan oso hedatuak dauden topiko batzuekin apurtzera behartzen gaitu. Zinemak



eta telebistak, eta eskolan ikasitako ikerketa sasizientifiko askok errealitatearekin batere zerikusirik ez duen irudi bat helarazi digute, eta gutako bakoitzak irudi hori barneratu du "egiazko" bilakatzeraino. Gogora ekarri dezagun Goebels-ek, gobernu naziaren ministro zenak, ezarri zuen propaganda printzipio ezaguna: "mila aldiz errepikatutako gezurra azkenerako egi bihurtzen da". Eta hau da hain zuzen ere herri indigenei buruz ditugun bi irudi orokorrekin gertatu dena: alde batetik herri atzeratuak direla, ia desagertuak, Amerikan bakarrik daudenak –ustez batez ere Iparraldeko Amerika mendebaldean-; eta bestetik inuzenteak direla, gutxi garatutakoak, laguntza behar dutenak.

Hala ere, herri hauen nekazetasun eta erresistentziari esker, errealitatea bere bidea egiten ari da, eta oso bestelako irudia erakusten digu; mundua eta bizitza era anitzean ulertzen duten herri berezien aitortza lehenesten duen errealitatea hain zuzen ere. Eta aniztasun hori sekulako ondare kultu-

rala da gizon-emakume guztiarentzat. Baina hau guzti hau baieztapen hutsal bat gehiago soilik izan ez dadin, baieztapen hau argitu eta indartzen duten datu objektiboetara jo dezagun.

Gaur egun, mundu guztiko lurraldeetan sakabanatutako herri indigenetan 370 milioi pertsona bizi dira, mundu mailako biztanleriaren % 4; eta planeta guztian dauden 5.000 kultura ezberdinetatik % 95 da herri indigenei dago-kiona. Nahiz eta Lurreko azaleraren % 7an zokoratu ditugun (ohian hezeak, desertiak, tundrak...) flora, fauna eta bestelako baliabideen biodibertsitatearen % 70a kontserbatzea lortu dute.

Azter dezagun une batez kultur aldakortasuna. Kultura pertsona talde bat –herri bat- eratu eta identitatea ematen dion sinismen eta gertaera materialen multzoa da. Definizio honek bizitzaren esparru guztiak barne-biltzen ditu, mundua ulertzeko modutik hasita, pertsonak ezartzen ditugun harremanetara, gure sinismen eta ondasun materialak ahaztu gabe Planetaren globalizazioaz horrenbeste hitz egiten den honetan alarma egoera piztu egin beharra dago, eta ez soilik jadanik agertzen ari diren konnotazio negati-boengatik (aberastasunaren banaketa ez justua, indibidualismoa, bizitzaren eta pertsonen balioak merkatuaren mende jartzea, herrialde aberats eta pobreen arteko alde gero eta handiagoa...), baizik eta sistema honek globalizazio kultural uniformizatzailea bilatzen duelako. Globalizazio kultural honek kultur aberastasun ikaragarri hori desagerraraziko du (dagoeneko gertatzen ari da), munduari begiratzeko eta pertsonen bizitza ulertzeko modu horiek guztiak desagerraraziko ditu. Desagertzen den kultura (herri) bakoitzeko izadiaren ezagutzaren ate bat gehiago ixten da, bizi garen mundu hau ikusteko, ulertzeko eta azaltzeko modu desberdin bat alegia. Galera hori ez da planetako zoko txiki eta ahaztu batean gertatzen den gertaera isolatua, baizik eta

gu guztioi eragiten digun gertaera bat, berdintasun esparru batean –elkarrenganako begirunez- harremantzen diren multzoen batuketara bezala ulertzen dugulako globala.



Ilido horretan, herri indigenei buruzko beste estereotipo bat apurtu dezakegu; ugaritasun hori ez ulertzea eta denak berdinak direla pentsatzearena. Herri hauen aberastasun kulturala hizpide hartuta, herri horien aldakortasuna nabarmendu beharra dago; hazpegiak, sinismenak eta elementu komunak partekatzen badituzte ere -bai eta problematikak eta eskubide bortxaketak ere-, euren artean desberdintasun handiak ere izan badituzte, talde haue-tako bakoitza ingurune oso desberdinean bizi behar izan delako, baldintza ekonomiko, politiko eta sozial oso desberdinetan.

Egoera honek “herri indigenak” terminoa berriro ere definitzera behartzen gaitu, herri hauei buruzko benetako irudi eta dimentsioa izan dezagun.

Oso zabaldua eta onartua dagoen definizioetako bat Lanaren Nazioarteko Erakundeak 1989ko ekainaren 27an onartutako 169 hitzarmenean jasotzen dena da. Bertan zehazten da herri bat indigena bezala aintzat hartuko dela baldin eta kolonizazioaren zein konkistaren aurretik edo indarrean dauden estatu-mugak ezarri aurretik lurralde horretan bizi zirenen ondorengoak bada, edota euren egoera juridikoa edozein dela ere euren instituzio sozialak, ekonomikoak, kulturalak eta politikoak –edo zati bat- mantendu baldin badituzte estatuko kolektibitatearen bestelako sektoreetatik bereizita. Azkenik, ikuspegi indigenarekin bat eginez, definizio honek aipatzen du taldeak bere burua halakotzat definitzea erabakigarria dela indigena bezala identifikatzeko, hau da, euren identitate indigena aitortzea ezinbesteko irizpidea izango dela kolektibitate hauek modu horretan determinatzeko.

Aipatu beharra dago herrialde gehienek herri indigenak egon badaudela aitortzen dutela, baina joera nagusia kasu askotan, aitortza hori nor bere herrialdean baino ondokoenean egitea dela. Egoera hau batez ere Asian eta Afrikan ematen da, eta herri indigenen ikusezintasuna eragiteaz gainera, lehenago azaltzen genituen benetakoa ez den irudia elikatzen dute. Eta kontinente hauek dira hain zuzen ere herri eta pertsona indigena gehien biltzen dituztenak. Hegoaldeko Asian adibidez -hindu azpi-kontinentea eta inguruko herrialdeak- 50 milioi indigena bizi dira, Ekialdeko Asian 67 milioi, eta Afrika ekialdean 6 milioi. Indigenek populatzen dituztela uste den beste eskualde batzuetan aldiz, datuak zeharo ezberdinak dira: Ipar Amerika, 2 milioi; Erdialdeko Amerika, 13 milioi; Hegoaldeko Amerika, 30 milioi, eta abar.



Euren aitortza eza bezalako diskriminazio egoerek, herri bezala euren eskubide indibidual eta kolektiboak errespetatzeko aldarrikapen indigenaren gorakada eragin dute mende honetako azken hamarkada hauetan. Modu honetan, euren presentzia agerikoa egin da, eta ez soilik bakoitzari dagokion estatuaren mailan, baizik eta nazioartekoetan ere; pasa den mendeko 80eko hamarkadan Herri Indigenen gaineko Nazio Batuen Lantaldea abiaraztea lortu zen, erakunde horrek berak 1994 eta 2004 urte arteko hamarkada Herri Indigenen Nazioarteko Hamarkada bezala izendatu zuen, bai eta bigarren bat ere. Dinamika hauen berehalako beste ondorio bat urtean behin Nazio Batuen egoitzan osoko bilkura egiten duen Gai Indigenetarako Foro Iraunkorraren eraketa izan zen, 2000. urtean sortu zena. Herri eta nazio indigenek nazioartean inoiz lortu duten maila handieneko espazioa da hau; mugari historikoa inondik ere, estatu-nazioez gainera, talde sozial bakar batek ere ez baitu lortu nazioarteko instituzio honetan maila horretako aitortza eta presentziarik.

Era berean, prozesu honen gaur arteko unerik inportantena 2007ko irailean eman zen; erakunde indigenen eta nazioarteko erakunde horretako estatu-gobernuekin denbora luzez (20 urte) gogor negoziatu ondoren, Nazio Batuen Asanblada Orokorrak Herri Indigenen Eskubideen Deklarazioa onartu zuenean. Aldarrikapen honen garrantzia Filipinetako buruzagi indigenaren hitzetan argi ikusten dugu: "Deklarazioaren ezarpenak ez die soilik herri indigenei mesede egingo, baizik eta planetari eta munduko gainontzeko pertsoneri ere. Lurra eta gure senitartekoak, landareak, animaliak eta bestelako izaki bizidunak zaintzeko dugun modu jasangarriaren arabera bizitzea baimentzen bazaigu, denok izango gara onuradunak. Gure hizkuntzan hitz egiten jarraitzeko eta gure kulturak mantentzeko gauza bagara, munduko ondare kulturala aberastuko dugu. Gure sistema ekonomiko, kultural, espi-

ritual, sozial eta politikoak indarrean dauden bestelako sistemekin batera existitu badaitezke, gure seme-alabei mundu anitzago eta bizigarriago bat utziko diegu oinordetzan”.

Nazioarteko esparru horiekiko lotura duten beste maila bateko esparruetan -tokikoak zein eskualde mailakoak-, alde aurretikako bereizketa bat egin behar dugu herri indigenen egungo aldarrikapen nagusiak aztertuta. Alde batetik herri bakoitzak, estatuarekin dituen harremanen eta bere eremu geografikoaren arabera bizi duen errealitate desberdinaren arabera, planteamendu aldarrikatzaile diferenteak ditu; eta bestetik badago herri indigena gehienek komunean duten aldarrikapen multzo bat, eta hauek maila ezberdinetan mahai-gaineratzen dituzte; eskualde mailan, estatuan edo nazioarteko esparruan. Egin beharreko beste argipen bat da, indigenek duten ikuskera kulturalaren ondorioz, euren eskaera politikoak, eta bestelako alderdi kultural, ekonomiko edo sozialetako eskaera guztiek euren arteko harreman estua dutela; hau da, ezin ulertu daitekeela hezkuntza prozesu bat lurraldea edo bertako sinismen sistema albo batera utzita, herri bezala bizirauteko defendatzen duten garapen ereduak zehazten baitu nolako izan beharko den hau

3. Aldarrikapen indigenak



Determinazio askerako eskubidea

Autodeterminaziorako eskubidea, nazioz gairik hainbat erakundeetan estatuen gehiengoak sinatu dituen hitzarmen garrantzitsuetan eta nazioarteko zuzenbidean onartutako eskubidea da. Eskubide honek zehazten du herri bakoitzak bere antolaketa soziala, ekonomikoa, politikoa eta kulturala zein beste herriekin izan nahi dituen harremanak modu aske batean erabakitzeko eskubidea duela. Horrela zehazten dute 1966. urtean Nazio Batuek onartu eta 1976ko urtarrilaren 3tik aurrera indarrean diren Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Hitzarmenak eta Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunak. Nazioarteko hitzarmen hauek euren 1.1 artikuluan zehazten dutenez, "Herri guztiek autodeterminaziorako eskubidea dute. Eta eskubide horren arabera, euren izaera politikoa, eta garapen ekonomikoa, soziala eta kulturala zehazten dituzte". Eskubide honen gauzape zabalak hainbat aukera jasotzen ditu; estatuan osoki integratzea eta sezesioa, erregimen autonomikoak, federalak, eta

abar, bai eta herrien antolaketa politikoa, zuzenbide-instituzioak eta euren garapen ezaugarriak definitzeko aukera ere. Honako hau estatuen aurrean eztabaida handiena sortzen duen aldarrikapena bada ere, munduko toki askotan aurrera pausu garrantzitsuak ematen ari dira arlo honetan, indigenen aldarrikapenen giltzarria bilakatzeraino, beste arlo guztietako eskaeren multzoa jasotzen duen aldarrikapena delako.

Lurralderako eskubidea

Kultura eta bizitza, bai eta herri indigenen identitatea ere, euren garapena ematen den lurraldeari zuzenki lotuak daude. Zentzu horretan, lurraldearen galerak mota guztietako galerak sortzen ditu: ekonomikoak, espiritualak, sozialak eta politikoak. Ondorio larriena herri bezala dituzten egitura sozio-kulturalen eta identitatearen ahultzea da. Eta hau horrela gertatzen da herri hauek lurraldeaz duten ikuskera mendebaldeko ikuskera kapitalistaren oso bestelakoa delako. Ikuskera kapitalista horretan lurrak, bere ustiapenean eta jabetzan oinarritutako balio ekonomiko hutsa du; herri indigenentzat ordea, lurraldea ez da soilik lurraren gainazaleko geruza, baizik eta ura, airea, lur-azpia eta oro har, herri baten identitatea zehazten duten elementu guztien multzoa; herria lurraldearen parte bat da, eta ez ordea lurraldearen jabe eta ustiatzailea.

Arrazoi horregatik, lurra eta lurraldea izateko eskubidea eskubide besterenezina da, eta bere aitortza indigenen aldarrikapen nagusia. Zenbait kasutan aitortza hau partziala eta mugatua izan da, estatuairen interesen arabera lur-azpiaren gaineko eskubidearen galera ekarri duena, eskubide honen gaineko hipoteka garbia. Beste kasu batzuetan "jabetza indibidual" bezala aitortu da, "edukitze" edo "usufruktu" bezala, eta hau ez dator bat indigenek eskubide hau ulertzeko duten moduarekin, eurek eskubideei komunitate-zentzu ar-

gia ematen baitiote. Arrazoi horregatik lurralde-zehaztapenerako eta lurraldearen gaineko eskubideen aitortzarako prozesuak ezinbestekoak dira herri hauentzat, herri biziraupena eta bideragarritasuna maila handi batean bermatzen dituztelako.

Kulturarako eskubidea

Aldarrikapen guztiak elkar-loturik dauden sare konplexu honetan kultura indigenen mantentzea eta garapena funtsezko elementuak dira, aipatu dugun bezala, herri hauen identitatearen parte handi bat zehazten dutelako. Mendebaldeko kulturarekin gertatzen denaren kontrara, indigenek ez dute kultura hainbat osagaietan banatzen (ekonomia, erlijioa, artea, politika...) kultura euren balio sistema eta bestelako erreferenteak osatu eta kolektibitatea



identifikatu eta batu egiten duen osotasun global bat bezala ulertzen baitute. Horregatik indigenek euren kulturen garapena –kolektibitatearen funtsezko elementu bezala- ahalbidetuko duten prozesuak sustatzen dituzte, kulturalki egokiak diren benetako hezkuntza politiken bitartez adibidez, munduari begiratzeko euren modua eta euren ezagutza propioekin abegikorrek direnak. Helburu hori betetzeko beharrezkoak diren mekanismo eraginkorrak zehazteko lanean dihardute, bi ikuspegiak –propioa eta kanpokoa edo arrotza- jasoko dituen hezkuntza curriculumen bitartez batez ere.

Jabetza intelektualaren aitortza

Gaur egun berebiziko aldarrikapen batean bilakatu da hau, euren ezagutzen lapurreta sistematikoa ematen ari delako; ingurugiroaren, biodibertsitatearen eta baliabide naturalen kontserbazioari lotutakoak batez ere. Multinazionalak, batez ere farmazia eta kosmetika enpresek eta zenbait aterakuntza enpresek ere, indigenek ehunka urteetan pilatu dituzten ezagutzak indarrez ebazten ari dizkiete. Medikuntzan adibidez, prozesu kimikoen bitartez dagoeneko aurkikuntza sendagarri gutxi egingo direla aitortzen da, baina aldi berean, herri indigenek okupatzen dituzten espazioetan (kasu askotan zokoratuak izan diren gunehorietan) medikuntzan eraginkorrak diren elementu eta produktu natural ugari oraindik ere ezagutzeko daudela aitortzen da. Horregatik enpresa askok ezagutza hauek patenteen bitartez lapurtzeko bideari ekin diote, etekin ekonomiko izugarriak ematen dizkietelako. Herri indigenek ez diote ezagutza hauek partekatzeari uko egiten, baina sortzen dituzten etekinak kontrolatu eta banatzearen aldekoak dira, bai eta nazioarteko komunitateak babestu beharko lukeen jabetza intelektual kolektiboaren aitortzaren aldekoak. Honek ezinbestean jabetza intelektual eta kulturalaren babesarako sistemak aldatek eskatzen ditu, norbanakoaren esparrutik kolektiborako bidea ginez.

Garapenerako eskubidea.

Indigenen aldarrikapen guztiak Pertsonen Oinarrizko Eskubidea den Garapenerako Eskubidean laburbildu ditzakegu. Hala ere, herri indigenek garapen propiorako euren prozesuak aitortzea eskatzen dute, inposizio eta baldintza gabe, eurek jabe izan behar diren parametro kulturaletan eta lurraldean oinarritutako bizi eredu bezala aitortuak izan daitezen.

Garapen programa asko, batez ere Munduko Bankuak (MB) edo Garapenerako Banku Inter-amerikarrak (GBI) herri indigenetan garatu dituztenak, ez dira inoiz ere ez kontsultatuak izan, inposatuak baizik. Programa hauen bitartez herri hauei arrotzak zaizkien aurreikuspen eta eskakizunak ezarri dizkiete, indigenen oinarri ekonomikoak eta kulturen desegituratze sistematikoa eragin dutenak. Ildo honetan, indigenak garapenerako oztopo bezala hartu dira, abiarazitako prozesuetatik eta erabaki guneetatik kanpo utziz. Kanpotik zehazten da indigenek jarraitu beharreko garapen eredu, eurentzat egokiena dena ez dakiten adin txikikoak balira bezala. Kasu hauetan alde aurretik informatutako (edo arrazoitutako) onespen libre bezala izendatzen den eskubidea ahaztu egiten da, kontsultarako eskubide hutsa baino harago doan eskubidea hain zuzen ere; euren lur eta lurralde indigenan, zein integritate kultural, sozial eta politikoan eragina izan dezakeen edozein garapen ekinzaren aurrean "ez" esateko eskubidea alegia.

Eta hau guzti hau gertatzen da, jasangarritasunaz herri indigenek duten ikuskerak garapen paradigma alternatibo berriak eta desberdinak xedatzen di-tuelako. Elementu exogenoen eragina gero eta handiago dela jakinda ere -batez ere globalizazio neoliberaletik eratorritakoak, "garapenerako bidearen" lehentasunezko helburua merkatuan integratzea dela agintzen dutenak,



eta termino hau ulertzeko modu mendebaldarraren pixkanakako onarpena suposatzen dutenak-, indarrean mantentzen da pobrezia ulertzeko modu konkretu horrekiko ukapen handia, ondasun materialaren eta zerbitzuen ga-betasunean oinarritutako pobreziaren ikuskeraren aurkako jarrera alegia.

Indigenek pobreziaren bestelako ikuskera aldarrikatzen dute; “merkatu eta diru-ekonomiaren esparruan soilik kokatutako diru-sarrera eta irteerekin batera, pobrezia neurtzeko bestelako adierazleak aintzat hartzeko beharra alegia”. Era berean, “pobrezia diru eta baliabide falta baino zerbait gehiago” dela zehazten dute, “boteregabezia eta erabakiak hartzeko prozesuak zein kudeaketa prozesuak eskuragarri ez izatea” besteak beste. Desberdintasun sozial eta ekologi-koek, eta injustiziak herri indigenen pobretzea elikatu eta betikotzen dute.

Egoera honen aurreko paradigma alternatiboa ezagutza da; ezagutza beharrianak era autonomo batean asetzeko eta ebazteko beharrezkoak diren tokiko oinarri ekologikoak kudeatzeko baldintza bezala ulertuta, ingurunearen baldintzetara koherentziaz egokitutako produkzio-sistemen garapena bultzatzeko ezagutza adibidez.. Ezagutza horrek, pertsonak ekitate egoera batean jartzen ditu erabaki, trebezia, identitate eta mundu-ikuskerari dago-kionean, eta kolektiboak eman beharreko prozesuetarako zein beharrianen asetze autonomorako ezinbestekoak diren balioak ezartzen ditu, elkartasuna eta elkarrekikotasuna adibidez. Eta nola ez, honek ez du jendarte indigenen isolamendu ezinezkoa sustatzen. Aitzitik, egun indarrean dauden hainbat esperientziek kontzeptualizazio hau dinamika ekonomiko eta ezagutza arrotzak erabilita ere garatzea posible dela erakusten digute baldin eta egungo errealitateen eskakizunetara egokitzen badira iraupenerako tokiko oinarriak desagerrarazi gabe eta beharrianak era autonomo batean asetzeko gaitasuna hobetuz eta indartuz.

Aurretik aipatutako hau guzti hau axioma indigena batean laburbildu daiteke; "hobe bizitzearen" axioma mendebaldarraren aurrean, "ondo-bizitzeaz" mintzo zaiguna. Hau da, gu guztiok eta planeta bera ere ondo bizitzeko beharrezkoa dena erabiltzea soilik, edo, gero eta hobeago bizitzea, horrek planetaren agortzea eta jendearen zein herrien arteko desberdintasunaren handitzea esan nahi badu ere.

Laburbilduz, herri indigenei kudeaketarako gaitasun propioa ukatzen zaie, bai eta arazoak konpontzeko euren metodo propioak ere, eta larriena dena, euren izenean mintzatzeko gaitasuna bera. Baina eurek ehunka, milaka urte eman dituzte bide hori urratzen, eta gaur egun ere ikuspuntu berriak mahai-gaineratzen dituzte aurrera egin eta nazioarteko komunitatearen partetik euren identitatearen zein desberdindutako herriei dagozkien eskubide indibidual eta kolektiboen aitortza eta errespetua erdiesteko.

Aldez aurretik aipatutako eskakizun nagusiak (Determinazio askerako eskubidea, Lurralderako eskubidea, Kulturarako eskubidea, Jabetza intelektuala-aren aitortza) eta egunerokoan herri indigenek aurre egiten dieten bestelako egoera zehatzagoak aintzat hartuta, kooperazioaren eta elkartasun politikoaren erronka erakunde indigenak eta euren prozesu autonomoak indartzeko jarraitzea da, bai eta emakume indigenek ere bizi duten diskriminazio egoeran era berezi batean eragitea. Hau guztia jarraian azaltzen diren terminoen bidez zehazten den helburu orokorraren mesedetan:

"eskubide indibidual eta kolektiboen errespetutik abiatuta (emakume eta gizon guztientzat, herri guztientzat), herri indigenekiko jarraiera politikoaren eragina hobetzea euren garapen prozesu propioak babestuz, eta maila lokalean, estatuan edo nazioarteko mailan ema-

ten diren eta zuzenean eragiten dizkieten prozesu politiko, sozial, ekonomiko eta kulturaletan indigenen parte-hartzea eta kontrola handitzea.”

Gaitasun politiko horretako beste elementu bat gehiago –egingarria dena– indigenak ez diren eta sistema neoliberal eta patriarkal honen aurka egonik sistema hori salatzen duten bestelako mugimendu sozial eta politikoen postulatuak eta herri indigenen postulatuak elkarrekintzan jartzeko bidea erraztea eta bultzatzea da. Batuketa horren ondorioz planteamendu politiko-ideologiko berriak sortuko dira, posible den bestelako mundua egikartzeko beharrezkoak diren eraldatze-alternatiba horietan aurrera egiten lagunduko gaituztenak.

4. Genero ikuspegia eta herri indigenak




Mugarik Gabetik lan hau prestatzerako garaian, kontutan izan beharreko alderdi desberdinen analisia egin dugu: genero harremanak eta biztanleria indigenaren artean dauden ezberdintasunak, berau sustatzen duten egoerak, emakume indigenen mugimenduak eta jarduteko estrategia bat planteatu ahal izateko genero ekitatearen aurrean ematen ari diren erresistentzia nagusiak.

Garrantzitsua da adieraztea, lehen egin dugunez, herri indigenen egoeran desberdintasun nabarmenak eta argiak daudela, beste herri batzuen egoerarekin erkatuta, beren banakako eta taldeko eskubideen alde egiten duten lanaren eta errealitatearen esparruan. Hala ere, eta aurrerago gehiago sakonduko dugun arren genero-zuzentasunari eta herri indigenei buruzko eztabaida nagusiekin eta oinarrizko kontzeptuekin, orain aditzera eman nahi dugu herri indigenen baitan genero-desberdintasunaren arloan dauden arrakalak, neurri handi batean, gainerako gizarteetan daudenen modukoak direla, baina zenbait berezitasun ere badituztela.

Puntu horri hasiera emateko, genero-harremanen esparruan, mundu osoan agertzen diren alderdi batzuk azaldu nahi ditugu (Norma Vazquez):

- Emakumeek eta gizonak eratzen dituzte gizarte guztiak.
- Gizarte guztietan, femeninitasuna eta maskulinitasuna kultura aldetik eraikitzen dira (hori argi ikusiko dugu, hala rolei nola subjektibotasunei begiratuta).
- Gizarte bakoitzak arau, tradizio eta balioen multzo bat du, eta, horren arabera, emakumei femeninitasuna eta gizoni maskulinitasuna esleitzeko modua *malguagoa edo zorrotzagoa* izango da.
- Gizarte guztietan, hainbat osagaien arabera bereizten da lana, eta, besteak beste, sexua hartzen da kontuan.
- Gizarte guztietan genero-harreman jakin batzuk eraikitzen dira.
- Kultura bakoitzak ideologia, tradizio eta erritual batzuk ehuntzen ditu, eta horiek zerbait "naturala" balitz bezala aurkezten dituzte generoko harremanak eta nortasunak; hala, beraz, ez dituzte aurkezten pertsonak eta haien inguruneak dituen beharrazinean erantzuteko sortutako eraikuntza historiko gisa.
- Gizarte gehienetan eta alderdi gehienetan, balio gehiago ematen zaio maskulinitasunari femeninitasunari baino.
- Gizarte gehienetan, emakumeek desabantailak dituzte, gizonekin erkatuta.

34 

Alderdi horiek hortxe irauten dute, **genero-desberdintasuna** berriz pizten da mundu osoan, eta ondo ezagutzen ditugun egoerak gertatzen dira berriz, besteak beste, hauek: emakumeek denik eta parte-hartzerik txikiena dute erabaki politikoak eta ekonomikoak hartzen diren tokietan, feminizidioak izaten dira, analfabetismo-tasak altuagoak izaten dira emakumeen artean, emakumeek sarbide murriztagoa dute osasun- eta kreditu-zerbitzuak eskuratzeko eta lurren titularrak izateko, eta pobreen artean emakumeak gero eta gehiago dira. Hala, 2008ko Social Watch-en txostenari jarraiki, gaur egun, emakumeek ez dituzte gizonak dituzten eskubide sozial, politiko eta juridiko berdinak, hala gertatzen da munduko eskualde guztietan.

Herri indigenak ardatz gisa hartuta, eta gaur egun mundu osoan dauden genero-desberdintasunek zerikusia dutela onartuta, herri horiek dituzten ezaugarri batzuk zehaztu behar ditugu orain; beti ere kontutan izanda ezaugarri hauetako asko noski ez direla bakarrik herri indigenei dagozkionak, baizik eta jendarte eta lurralde desberdin askotan ematen direnak. Era berean, zaila da berezitasun horiek definitzea, lehen esan dugunez herri indigenen barruan era askotako errealitateak daudelako eta ezinezkoa delako beti-bateko talde gisa aztertu. Hortaz, bada, egoera horiek dagokien testuinguruaren eta herriaren arabera aztertu behar ditugu. Desberdintasunaren arloan dauden arrakalak banaka aipatuz gero, zerrenda zabalegia eta zailegia egingo genuke; hala, beraz, bost arlo bereiziko ditugu, arlo horietan agertzen baitira herri indigenen errealitatean dauden desberdintasunik berezianak:

A. Kultura eta giza arloa: bertan honelako alderdiak daude, besteak beste: emakumeak beren kulturaren babesari atxikita daude, herri indigenek oso ondo balioesten baitute hori; eta, kontraesana bada ere, gizon askok beren kultura-rekin batere zerikusirik ez duten osagaiak eskuratzen dituzte (hala nola, hiz-

kuntza, tecnología berriak, prestakuntza...), eta emakumeek, berriz, aukera gutxiago dute politika- eta gizarte-arloan eta arlo pertsonalean, tresna horiek eskuragarri ez dituztelako. Beste kontraesan bat hauxe da: herri indigenetan rol femeninoak, ustez, oso ondo balioetsita daude, baina, hala ere, emakumeek oso eragin gutxi dute, oso autoestimu gutxi dute eta gutxiagotasun-us-tea dute. Arlo honetan aztertzen da, herri indigena gehienetan, emakumeak ugaltze-esparruari lotuta azaltzen direla eta, aldi berean, emakumeak zuzen lotuta daudela amatasunari, ezkontzari eta heterosexualtasunari; hala, beraz, ez dira barne hartzen lesbianismoa, ama ez izatea edo sexu- eta ugaltze- esku-bideekin zerikusia duten beste gai batzuk.

B. Gizartean parte hartzea eta erabakiak hartzea: arlo hau argi agertzen da zen-bait egoeretan; hona hemen adibide batzuk: emakumeek gizarte- eta antola-kuntza-arloan jasaten duten bereizkeria, ez dira aintzat hartzen emakumeek egin ditzaketen ekarpenak, ez dute sarbiderik erabakiak hartzen diren eta bote-rea dagoen guneetara iristeko, oztopoak aurkitzen dituzte erakundeetan parte hartzeko edo beren erakundeak eratzeko, hala tokiko arloan nola nazioan eta nazioartean. Puntu honetan aipatu behar dugu herri indigena askotan aukera hau hartzen dutela aintzat: bikote heterosexual modura parte hartzea. Hala, bada, egoera askotan, emakumeak politikan parte hartzeko guneetan azaltzen dira, baina sakonago aztertzen badugu, argi ikusiko dugu ez dutela benetan politikan parte hartzen, edo parte-hartzean ez dagoela berdintasunik.

C. Ekoizpen- eta ekonomia-arloa: etxeko eta ugaltzeko rola emakumeei atxiki-ta agertzen da ia osorik. Gainera, emakumeak gizonen mende daude, eta, ho-rrren ondorioz, lan femeninoak okerrago balioetsita daude. Alabaina, batzue-tan, malgutasun gehiago egoten da, eta emakumeek gehiago parte hartzen dute ekoizpenari lotuago dauden roletan. Garapenerako programetan bazter-

tuta eta alde batera tusita daude, eta, gehienbat, etxeko esparrukotzat jotzen diren arloetan eta roletan agertzen dira, esate baterako, osasun- eta hezkuntza-arloan, edota artisautza-lanak edo oinarritzko elikagaiak prestatzeko esparruetan. Azkenik, lurren banakako eta taldeko jabetzarako sarbidean ere desberdintasuna sumatzen da, eta, gainera, emakumeak ez dira aintzat hartzen baliabide ekonomikoak banatzerakoan.

D. Ondasunak eta zerbitzuak eskuratzeko sarbidea: ez dator bat emakumeek dituzten beharrizan praktikoekin, ez eta haien interes estrategikoekin ere; gainera, ez dira kontuan hartzen emakumeen gizarte-, ekonomia- edo geografia-baldintza bereziak. Medikuntza tradizionala ez da ondo aintzatesten edo balioesten, eta maiz emakumeak izaten dira medikuntza hori menderatzen eta irakasten dutenak. Ez dago informaziorik metodo antikonzeptiboari, abortuari eta familia-plangintza izateko eskubideari buruz. Gainera, estatuko programetara iristeko sarbidea emakumeengandik urruti egoten da beti, hor gizonak baitira nagusi. Hala, bada, baliabideak oso urriak direnez, ia ez dute sarbiderik horietara iristeko.

E. Prestakuntza, komunikazio eta informaziorako sarbidean argi ikusten da, besteak beste, emakumeek mugatuta dutela eskolara eta prestakuntzako beste gune batzuetara joateko aukera. Gainera, sarbidea baimentzen dietenean ere, ez dituzte aintzat hartzen emakumeek beste zama batzuen ondorioz dituzten baldintzak eta mugak; prestakuntzako gune horiek lidergoa, kudeaketa edo politika lantzeko arloak izaten dira. Bestalde, haien kulturei balioa kentzen zaie –eta emakumeak dira kultura horien igorleak–, eta beste eredu batzuk ezartzen dizkiete. Horrez gain, hezkuntza urrikoak direnez, informazioa, komunikazioa eta teknologia berriak eskuratzeko duten sarbidea hala-moduzkoa da.



Aipatutako arlo guztietan desberdintasun aldetik dauden arrakala horiei zera gehitu behar diegu: emakume indigenen hainbat erakundek behin eta berriz adierazi dute etengabe azpimarratu behar dela egoera batzuetan are handiagoak direla genero-desberdintasunak herri horietan. Hala, bada, hauek dira desberdintasuna areagotzen duten egoerak:

- Kultura gaizki ulertzea: gertaera estatikoa eta aldaezina balitz bezala hartzen da; horko balioek botere gehiago ematen diote gizonari erabakiak hartzeko, eta, sarritan, arlo pribatura baztertzen eta mugatzen dituzte emakumeak.
- Egoera politikoa, ekonomikoa eta soziala: horren ondorioz, po-breziak indarrez bultzatzen ditu desberdintasun-moldeak (baina

ez da haien sorburua), aukerak, eskubideak eta boterea murrizten dizkie hala gizonei nola emakumeei, eta areago nabarmentzen ditu finkatuta dauden rol desberdinak.

- Hirugarren egoera, maiz ahaztua, bereizkeria etnikoa da: gizonen eta emakumeen egoera larriagotzen du, eta eragin bereziki larria du emakumeengan.

Azkenik, nabarmendu behar dugu oso zaila dela azterketa zehatzak esku-ratzea herri indigenetan dagoen genero-desberdintasunari buruz. Puntu honek zerikusia du azken hamarkadetan sexuen arabera bereizitako datuak biltzeko eta aztertzeko egon den eskaerarekin. Prozesu horiek aldatzen ari dira, baina, hala ere, oraindik ere zaila izaten da sexuen arabera banandutako datuak lortzea, bereziki, herri indigenei dagokienez.

Emakume indigenen mugimendua

Goian azaldutako desberdintasun-arloko egoeren eta arrakalen aurrean, emakume indigenen mugimenduak azken urteetan lortu du bere burua zehaztea, teorizatzea eta nazioartean ikusgai jartzea, bai eta emakumeen mugimenduan edota mugimendu feministan eta bere erakunde indigenen baitan ere –eta batzuetan hori are zailagoa izaten da–. Emakume indigenen mugimenduak gora egin du, beren herriek banakako eta taldeko eskubideen alde egiten duten borrokak gora egin duen heinean.. Hala, esan dezakegu azken bi hamarkadetan, emakumeen foroan, bileren, sareen eta gailurren bidez, mugimendu zabala eratu dela, eta, horrenbestez, genero-desberdintasunen arazoa estatu-nazioen arloan ikusarazteaz gain, herri eta erakunde indigenen baitan ere jarri dutela ikusgai. Horrez gain, emakume indigenen

artean, gero eta lider eta intelektual gehiago azaltzen da, eta, hortaz, bereizkeriak dituen hiru alderdietatik azter dezakegu egoera: emakumea, pobrea eta indigena izatearen aldetik.

Emakume indigenek gune kolektiboetan parte hartu dute herri indigenen eskubideak aldarrikatzeko; eta, horrez gain, gune bereziak sortu dira, hala nola, Emakume Indigena Afrikarren I. Biltzarra (FAIWC) (Agadir - Maroko, 1998), Ameriketako Emakume Indigenen I. Gailur Kontinentalak (Oaxaca, 2002) eta Abya Yalako Emakume Indigenen I. Gailur Kontinentalak (Puno, 2009). Nazioarteko bilera horien bidez, aurrera egin nahi da emakume indigenen partaidetza eraginkorra sustatzeko eta bermatzeko lanean, haien egoerari begira garrantzitsuak diren foro guztietan. Horretarako, guztion agendak eta jarduteko eta koordinatzeko estrategiak eratu dira; eta, orobat, emakumeak ikusgai jartzeko eta prestakuntza, hausnarketa eta gaitasuna lantzeko gune bilakatu dira.

Bestetik, prozesu horren ondorioz, emakume indigenen eskaerak, haien errealitatea, eta, era berean, gai horiei heltzeko modua mugimendu feministaren aztergaia eta eztabaidagaia dira. Latinoamerikako eta Karibeko Bilera Feministak adibide gisa hartuta, nabarmena da bilera horietan mugimenduak hausnarketa egin duela aniztasunari buruz, bereziki, emakume indigenen egoerari buruz, eta bilakaera izan duela hausnarketa horren ondorioz. Kulturari buruz aritu garenean adierazi dugunez, prozesu horiek etengabe aldatzen eta bilakatzen ari diren errealitateak dira. Adibidez, 2014an Perun ospatutako topaketa feministan feminismo komunitarioaren gorakada bat nabarmendu zen, zeinek lurraldearen eta emakumeek euren gorputzaren alde egiten duten borroka uztartzen dituen, "gure gorputza, gure lurraldea". Feminismo komunitarioak maila berean herri indigenen mundu-ikuskerak eta feminismoa aldarrikatzen ditu; herri indigenen eskubide kolektiboak eta

emakumeen eskubide indibidualak; patriarkatuak ere salatuz, bai koloniala eta bai jatorrizkoa, ez bakarrik azterketa historiko baten kontuagatik, baita ere gaur arte iraun duelako eta dituen ondorioengatik.



Eztabaidak ikusita, aniztasuna pixkanaka asimilatzen ari dela jakinda, eta emakume indigenen errealitatearen konplexutasuna aintzat hartuta, aditzera eman behar dugu emakumeen mugimendua garatu dela; eta, horrek ondorioak ekarzen ditu, emakume horien banakako eta taldeko eskubideak betetzen aurrera egiteari begira. Era berean, horren ondorioz, aldaketak egin behar izan dituzte, eta kontzientzia hartu behar izan dute haien buruari buruz, eta erkidego, antolakuntza eta mugimenduaren barnean dituzten harremani buruz.

Funtsezkoa da prozesu horrekin aurrera jarraitzea, genero-desberdintasunak gutxitzeko. Ildo horretan, garrantzizkoa da mugimendua sendotzea eta, orobat, emakume indigenek emakume gisa dituzten eskubideak eta, halaber, beren herriek aintzatetsita dituzten eskubideak ikusgai jartzea, hau da, beren nortasun etnikoari dagozkion kultura- eta gizarte- arloko taldeko eskubideak.

Horretarako, hausnarketa eta eztabaida egiten jarraitu behar dugu, taldeko eskubide horiek eta aniztasunean berdintasuna lortzeko eskubidea eta erabakiak hartzeko (oinarriko erabakiak hartzeko, esate baterako, sexu- eta ugaltze-eskubideak betetzeko) askatasuna nola bateratu ahal diren jakiteko. Gai horiek sakonago aztertuko ditugu feminismoari eta emakume indigenen mugimenduari buruko eztabaidak lantzean.

Emakume indigenen mugimenduaren adibide gisa, Emakume Indigenen Lehen Bileran Nazionalean Ramona komandanteak adierazitako hitzak ekarriko ditugu hona (Oaxaca, 1997): "*Oztopo asko gainditu behar izan dugu ho-*

naino iristeko: boterearen jabeek bereizita eta isilik nahi gaituzte; Mexikoko aberatsek esplotatzen diren animaliak bezala eduki nahi gaituzte; atzerri-tarrek gure lurrik onenak bereganatu nahi dituzte eta esklabo gisa baliatu nahi gaituzte; militarrek gure erkidegoak inguratzen dituzte, bortxatzen gaituzte, gure seme-alabak mehatxatzen dituzte, eta drogak, alkohola, prostituzioa eta indarkeria sartzen dituzte; eta gure izenean pentsatu eta aritu nahi duten horiei ez zaie gustatzen guk indiook gure hitza esatea, eta beldur dira gure errebelldiaz ... Hala iritsi gara honaino, gure adiskideetako batzuk aurka egon arren, adiskide batzuek ez baitute ulertzen zein garrantzitsua den emakumeok parte har dezagun, gizonak egiten duten bezalaxe. Horiei guztiei eta geure buruari galdera hau egin nahi diogu: Zapatismoa gauza bera izango al litzateke emakumerik gabe? eta hainbeste bultzatu gaituen gizarte zibila –hala indigena nola indigena ez dena–, gauza bera izango al litzateke emakumerik gabe? Gogoeta egin ahal dugu eraiki nahi dugun Mexiko menderakaitzari eta berriari buruz, Mexikoko emakume menderakaitzak eta berriak aintzat hartu gabe?”.

Genero ekitatearen aurrean erresistentzia nagusiak

Jakina denez, mugimendu eta erakunde indigenek sarritan aurkeztu dituzten era askotako argudioek zalantzan jartzen dute mugimendu feministak eta emakume indigenek genero-zuzentasuna lortzeko egiten duten lana.

Argi adierazi behar dugu kritika horietako asko gizon indigenek egin ditzutela. Guatemalako maia-kaqchikel den Aura Cumesek dioenez, erresistentzia horiek lau multzo handitan bil ditzakegu: generoa eta feminismoa mendebaldeko kategoriak dira; hori dela-eta, kategoria horiek erabiltzea kaltegarria izan daiteke erkidegoaren gizarte-ehunarentzat; lankidetza



bortxaz ezarritako gauza bat da eta, beraz, erakundeen autonomiaren aurka doa; eta, azkenik, kolonialismoaren molde berri bat da. Cumesek azaldutako argudioak paratuko ditugu hona: herri indigenetan genero-zuntasunaren alde egindako lana galgatzeko –jakinaren gainean egonik edo arduragabeki–, tartean sartzen diren ikuspegiei buruz azaldutako argudioak.

Generoa eta feminismoa mendebaldeko kategoriak direla dioen ikuspegiari dagokionez, gure ustez, gai hori zabal landu dugu agiri honetan. Alabaina, ikuspegi horretan, kontzeptu horien hautabide gisa, osagarritasun eta dualtasun oinarriak aipatzen dituzte, guztiz indigenak izango balira bezala. Hori ukatu gabe, esan dezakegu sarritan hola jokatzan dutenek errealitatearen azterketa mugatzen dutela, pisu gehiago baitu beren diskurtso politikoak, emakume eta gizon indigenek bizitzeko eta elkarren artean harremanak izateko duten moduari buruzko ikuspegi kritikoak baino. Hala, bada, kontzeptu horiek aldarrikatu beharko genituzke, baina ulertu beharko genuke nola funtzionatzen duten, hau da, etengabeko elkarriketa bat eginez errealitatearekin eta, orobat, dauden zapalkuntzako harremanak zalantzan jartzea ahazten ez duten jarrera politikoekin.

Erkidegoko gizarte-ehunari kalte egiteko dagoen arriskuari dagokionez, oso nabaria da kezka hori indar gehiagoz agertzen dela genero-arloko gaiei buruz hitz egiten dugunean. Aitzitik, kezka horrek etengabe agertu beharko luke; izan ere, gizartea aldatu nahi duten eragile guztiek gizarteko baldintzak aldatzen dituzte, hain zuzen, aldatu nahi direnen moduko egoerak sorrarazten dituzten baldintzak. Hortaz, argudio horrek ziurtzat joko luke gizarte-ehuna ezin hobea dela, edo oro har gizarteko baldintzak alde batera utzita eraiki dela.

Erakundeen autonomiari dagokionez, galdera batzuk egin beharko genituzke nahitaez; esate baterako, hauek: nork eraikitzen du erakundeen autonomia?, nork zaintzen du autonomia hori askotarikoa eta demokratikoa den, emakumeen eta menpean dauden beste talde batzuen partaidetzari begira? Erakundeen burujabetzari begirunea izan behar zaio. Horrek duen garrantzia onartu arren, kontuan izan behar dugu, kasu honetan, burujabetza hori ez dela bakarrik erabili behar genero-zuzentasunaren aldeko lanarekiko erantzukizuna ezkutatzeko eta saihesteko.

Azkenik, emakume indigenek desberdintasunen aurka egiten dute borroka **kolonialismoaren molde berri bat** dela dioen argudioari dagokionez, bakarrik du garrantzia, baldin eta seriotasunez aztertzen badugu ia zergatik hori izan daitekeen horrela, eta ez politika-, gizarte- edo ekonomia-arloko beste gai batzuk. Nabaria denez, argudio horrek indar etikoa galtzen du, baldin eta aitzakia gisa erabiltzen badugu, aztergai ditugun kontzeptuetatik urruntzeko.



Azken batean, zapalkuntzek eta, beraz, zapalkuntza horien kontra egin beharreko borrokek duten garrantzia gutxitzea edota ikusezin bihurtzea adibide argia da, garbi erakusten baitigu balioa kenduz zapalkuntza horiei eusten dietela.



Esentzialismo etnikoa

Mundu-ikuskeran indigenetan sarritan lotzen dira kultura, jakinduria edo nor-tasuna natura edo antzinako elementuekin. Eta lotura hau sakratu egiten da askotan. Ikuspegi hau modu esentzialistan ulertzeak sarritan kultura era estatiko eta eztaba daezinean ulertzea dakar eta gainera emakume indigenak gehinetan jasotzen dute kultura bizirik mantentzeko agindua. Eta horrek, era berean, emakumeen eskubide eta askatasunaren kontra egiten du generoa-ren arabera ohiturak eta aginduak betikitzea dakarrelako.

Aída Hernández, antropologia doktorea eta CIESAS-eko ¹ ikertzaile titularra da. Horren ildora, bere hitzetan *“Estrategia politiko horrek barnean dituen arriskuen artean, nabarmena da mugimenduak berak bere hitzaldia sortzen duela, esentzialismoaren ildotik joz, eta herri indigena askoren eguneroko bizitzan agertzen den antidemokrazia, harraparitza edo indarkeria bezalako benetako arazoak aurrean eduki gabe. Barneko arazoak daudela ukatzen baldin bada, ez dago arazo horiei aurre egiteko beharrik, ez eta irtenbide politikoak bilatzeko beharrik ere”*².

1 CIESAS: Antropologia Sozialaren Goi Ikasketen eta Ikerkuntzen Zentroa Mexikon

2 Ondorengo artikulutik ateratakoa: “Entre el etnocentrismo feminista y el esencialismo étnico. Las mujeres indígenas y sus demandas de género”, Aída Hernández Castillo, “Debate Feminista”-an, 12 urtea, 24 bol., 2001ko urria, 206-230 orriak.

Lehen esan dugunez, emakumeen eskubideen aldeko mugimenduari aurre egiten dioten indigenen erresistentziak, maiz, gizon indigenek gidatzen eta babesten dituzte. Ildo horretan, gizon horiek adierazten dute emakumeen mugimenduak bultzatzen dituen ideiak arrotzak direla, erkidegoaren gainera jartzen direla, herrien eskubideak babesteko borrokaren gainera, eta emakume eta gizon gisa beren burua ikusteko kultura-arloan dituzten moldeen gainera ere bai. Hori oztopo larria da, eta arreta galarazten die, herri indigena gisa dagokien kultura- eta politika-nortasuna osorik gauzatzeko guneak eraikitze borrokatik aldentuz. Neurri handi batean, ikuspegi horren oinarrian kulturaren idealizazio nabarmena dago, aldaezina eta estatikoa den zerbaiten gisa hartzen baitu kultura, arazo horiek ezkututzen baititu, eta, nolabait ere, zuzentasun eza justifikatzen baitu.

Horren aurrean, berriz ere adierazi behar dugu kulturak ez direla aldaezinak, dinamikoak baizik, eta, beraz, etengabeko bilakaeran daudela, inguruan duten errealitatera berriz egokitzeko prozesuan. Era berean, beste estereotipo batekin hautsi nahi dugu, desberdintasunak konkistatzeko eta kolonizatze prozesuen ondorio zuzena direla dioen horrekin. Sarritan emakume indigenek egin dituzten azterlan eta ikerketa askoren arabera, ondo egiaztatuta dago lehenagotik ere genero-desberdintasuna zegoela. Hala ere, onartuta dago kolonialismoak eta ezarri ziren kultura-parametro berriek norabide berria eman ziela desberdintasun horiei, eta larriagotu zituela. Hortaz, berriz irakurri behar ditugu kultura-arloko iragana eta oraina, mendeetako zapalkuntzaz blaituta baitaude, eta ondo zehaztu behar ditugu desberdintasunean oinarritutako rola esleitzeko kulturetan dauden jarduerak. Ildo horretan, benetako osagarritasunaren eta dualtasunaren balioak berreskuratu behar ditugu, diskurtso hutsetik harantz joz eta dimentsio kritikoa izanik. Lagungarriak izan daitezke zuzentasunean oinarritutako harreman berriak

eraikitzeko, errealtate etnikotik abiatuta, eta ondo ulertuta barneko aniztasunak ez duela nahitaez esan nahi mugimendua zatituko denik, kontrakoa baizik: onarpenak sendotuko du.



Bestela esanda, emakume indigenak beti egongo dira mugatuta feminismo batzuek duten etnozentrismoaren eta herri indigenen erakunde batzuek duten esentzialismo etnikoaren artean, bi aukera baizik ez dagoela dioen imaginarioa indartuko delako; hona aukerak: tradizioaren bidez irautea, edota modernotasunaren eta arrotza denaren bidez desagertzea. Eta horren ondorioz, atzekoz aurrera eta aurrekoz atzera, desberdintasunak indartuko dira.

Ingurune horretan, Aida Hernandezen aipu hau ekarriko dugu hona: *Emakume indigenek hainbat gunetan adierazi dute zein diren arrisku horiek, eta aukeratu dute beren kulturen izaera historikoa eta aldakorra aldarrikatzea eta, aldi berean, uko egitea hain ustez beren duintasunaren aurka doazen "erabilera eta ohitura" horiei. Borroka bikoitza da: estatuaren aurrean, kultura-bestelakotasunari eusteko duten eskubidea aldarrikatzen dute; eta beren erkidegoen barnealdean, berriz, beren ustez emakumeen eskubideen aurka doazen ohiturak aldatzeko borrokatzen dute. Haien borroka ez da kultura esentzialista onartzearen aldeko borroka bat, baizik eta kultura hori berre-raikitzeko, erkatzeko edo berriz egiteko eskubidearen aldeko borroka bat; eta ez dituzte betetzen estatuak ezarri dituen baldintzak, baizik eta herri indigenek barnean dituzten pluraltasunen esparruan zedarritu dituzten baldintzak (Hernandez Castillo, R. Aida, 2001).*

Aurreko guztiak aukera emango digu borroketan dauden isolamendu batzuekin hausteko, itunak sendotzeko, eta herri indigenen politika-, kultura-, gizarte- eta ekonomia-arloko eskaeren koherentzia indartzeko.

Arrazakeria eta pobrezia

*"Arrazakeriak eta matxismoak iturri berberetan edaten dute,
eta antzeko hitzak jaurtitzen dituzte ahotik"*
Eduardo Galeano, Uruguai.



Orain arte, desberdintasuneko hainbat egoera azaldu ditugu: kultura-, gi-
zarte- eta politika- arloko desberdintasuna. Desberdintasun horiek barneko
eta kanpoko zapalkuntzako egiturak sorrarazten dituzte; eta egitura horiek
herri indigenen eskubideak mugatzen edota bortxatzen dituzte, eta eragin
berezia dute emakume indigenengan. Egoera guztietan agertzen diren des-
berdintasunaren osagai batzuk gizarteko gainerako taldeek ere badituzte,
indigenak ez diren emakumeek ere bai.

Hala ere, noizbait adierazi dugunez, herri indigenek beste egoera bat azal-
du dute, beti bereizkerian egotearekin eta eskubideak urratuta izatearekin
zerikusia duen egoera. Egoera hori arrazakeria da, pobrezia loturik dago
zuzenean, lehen aipatu ditugun egoeretan agertzen da, eta egoera horietako
ondorio txarrak larriagotzen ditu.

Era berean, genero-arloko zuzentasun ezari dagokionez, emakume indige-
nei buruz ari garenean, emakume horiek jasaten duten zapalkuntza hiru-
koitza adierazi behar dugu: emakumea izatea, indigena izatea eta pobra
izatea. Pobrezia bereziki lagungarria da desberdintasun-moldeak berriz
ager daitezen, baina, hala ere, ez dugu pobrezia gaizki ulertu behar: ez
dugu hartu behar desberdintasunak sorrarazten dituen arazoietako bat
balitz bezala. Izan ere, arazoak honako hauek dira: emakume guztiengan
eragina duten gizarte-, politika-, eta ekonomia-arloko egitura bidegabeak.

Eta egitura horien guztien oinarria arrazakeriak herri indigenei buruz duen ustea da.



Pobreziaren ondorioz, emakumeen eta gizonen arteko bereizkeria agertzen da berriz, eta, horrez gain, egoera hori areago larritzen da, gizonek eta emakumeek elkarren artean laguntzeko dituzten gune osagarriak hondatzen dituelako. Adibidez, pobreziak areago indartzen du gizarte guztietan tradiziozko rol maskulinoei eta femeninoei eusteko dagoen joera. Izan ere, aukerak, eskubideak eta boterea gutxitzen dizkie emakume eta gizon gehienei, eta emakumeak dira sarbide eta kontrol gutxien dutenak.

Hala pobreziak nola arrazakeriaren beste ondorio batzuek matxismoa elikatzen dute etengabe. Izan ere, lehen aipatutako rolak berriz agertzeaz gain, eta emakumeen menderakuntzari eta zapalkuntzari eusteaz gain, gizon indigena askok emakumeen bizkarrera botatzen dituzte beren frustrazioak, matxismoa dela-eta. Hari gidari argi bat ikus dezakegu arrazakeriaren eta matxismoaren artean. Menderatzeko bi sistemek elkarri elikatzen diote, eta guztiz txertatuta daude gizarte-, politika-, ekonomia- eta kulturaarloko egituretan.

Pobrezia eta arrazakeria aintzat hartzean egon daitekeen arrisku bat hau da: "lehia" ager daiteke zapaldutako taldeen artean, borroka alde batera edo bestera zuzentzea garrantzizkoagoa ote den erabakitzeko, eta, hortaz, laguntza eta arreta gehiago lortzeko. Hala ere, zapalkuntzan nor bere burua ezagutzeko aukera aztertu behar da, eta, horrela, zapalduta dauden taldeek hobeto ulertu behar dute besteen egoera, eta haien arteko lotura sendotu behar da.

5. Eta guzti honen aurrean, zer egiten dugu? Mugarik Gaberen estrategiak herri indigenekin lanean



"... gune hauen bidez, zera lortu nahi dugu: emakume adiskideen nortasuna eta duintasuna, eta emakumeen eskubideak errespetatu dituzten, hartara, gizonen eta emakumeen artean dagoen desberdintasuna maila egoki batera iritsi dadin, berdintasunez hitz egin ahal izan dezagun, eta, horrela, gobernu indigena, herri indigenen proiektu politikoa eta bizitza-planak eraiki ahal izan dituzagun, gure adiskide diren emakume horiek egindako ekarpenei esker. Horretan ari gara, lan hori guztioi baitagokigu... gizonak eta emakumeak elkarren artean egindako eraikuntza bat da, horretaz baitoa generoari buruzko gaia."

Guillermo Tascón, Kolonbia.

Mugarik Gabetik beti planteatzen ditugu Hegoaldean eta Iparraldean elkarren artean osagarriak diren estrategia eta ekintzak, beti ere aldatu nahi ditugun egoeren zergatietan eta ondorioetan eragina izanez.

Adibidez, ez lukee zentzurik izango Elkartasuneko Lankidetzaren gauzatzea Latinoamerikan enpresa transnazional baten aurrean komunitate indigena baten erresistentzia prozesua lagunduz gero hemen gure ingurune hurbilean Hez-

kuntza Eraldaitzea ez badugu erabiltzen herri indigenen egoeraren aurrean kontzientzia kritiko bat sortu eta gertatzen dena salatzen ez badugu.

50 

Kasu guztietan prozesuak bultzatzen lan egiten dugu, proiektu bakanak burutu beharrean eta gure aliatuak prozesu horiek martxan jartzen dituzten mugimendu sozialak dira. Kasu honetan mugimendu indigenaren inguruan hiz egingo genuke, bai Abya Yala kontinente osoari dagokiona eta baita herrialde eta testuinguru desberdinetakoa.

Jarraian, genero ekitatea kontutan hartuz, Herri Indigenekin lan egiteko estrategiak proposatzen ditugu, bai Hegoaldean bultzatzen dugun Lankidetzaren bidetik eta bai Iparraldean burutzen dugun Hezkuntzaren bitartez. Estrategia horiek martxan jarri aurretik kontutan izan beharreko hainbat gogoeta garrantzitsu ere aipatzen ditugu.

Aldez aurreko gogoetak...

Oro har, aztertzeko eta jarduteko ereduak **lehentasuna eman behar dio ezinbestez banakako eta taldeko giza eskubideen ikuspegiari**, eta, beraz, pobrezia-aren ikuspegiaren gainetik jarri behar du hori. Eskubideen ikuspegi horretatik lan egiten badugu, pertsona eta herri indigenak eskubide osoko subjektuak direla jo behar dugu. Bestalde, horren ondorioz, nazioarteko lankidetzak esku hartzeko dituen praktikak aldatu beharko lirarteke, eta Garapenerako Hezkuntzak igortzen dituen ikuspegiak ere bai. Horrela, politika- eta gizarte- arloko parte-hartzea eta esku-hartzea bultzatuko dugu eraldatzeko prozesuetan. Hala, bada, horiek aukera emango digute egiturazko aldaketak egiteko eta banakako eta taldeko herri indigenen eta bereziki emakume indigenen eskubi-
deak benetan ezartzeko beharrezkoak diren baldintzak garatze aldera, ema-

kumeen eta herri indigenen eskubideei arduraz berezia eginez eta, betiere, politika-, ekonomia-, kultura- eta gizarte-ingurune guztiak aintzat hartuta.

Gogoan izan behar dugu, kontzeptuen eta arazoen inguruan dauden unibertsaltasun batzuk onartuta ere, errealitatea oso konplexua dela, eta oso modu desberdinetan agertzen dela, herri indigena eta komunitate bakoitzak duen egoera bereziaren arabera. Horrek, eragina izango du, emakume indigenen egoerari heltzeko, emakumeek eta beren erakundeek baliatuko duten molde berezian. Horregatik, genero-ekitate eta herrialde indigenenak aintzat hartzen dituzten jarduteko ildo estrategikoak landu nahi baditugu, **lehenik, errealitateen azterketetan sakondu beharko dugu** etengabe (eta plurala nabarmentzen dugu).

Agiri honetan barrena behin eta berriz aipatu dugun beste osagai bat azpimarratu nahi dugu jarraian: **aniztasuna eta harekiko errespetua**, hau da, aniztasunaren babes politikodemokratikoa. Kasu honetan, sexu-desberdintasuna, sexu-aukera, adina eta horrelako ezaugarriek ez dute zuzitzen gizarte-, kultura-, ekonomia- edo politika-aldetik egon daitekeen desberdintasuna. Era berean, sinesmenetan, balioetan edo bizimoldetan dagoen desberdintasunak ez du inola ere zuzitzen bereizkerian edo desberdintasunean oinarritutako traturik. Horrek agerian jartzen du borroka desberdintasunen aurka doala, ez bestelakotasunen aurka. Aura Cumesek honelaxe dioa: "Menderakuntzako egoeretan, bestelakotasuna jardute baztertzailen eta diskriminatzailen tresna gisa eratu da; justiciaren aldeko borroketan, berriz, bestelakotasuna aniztasunaren adierazpena da"

Osagai horiek oinarritzat hartuta, gure estrategiek ezinbestez hartu behar dute barne **emakumeen eskubideen babesa eta salaketa egiteko eta, oro-**

bat, jarrera hartzeko beharra eta erantzukizuna. Gainera, genero-ekitatearen alde egin behar dute, eta agerian utzi behar dute ezinezkoa dela gizarte bidezkoagoak lortzea, genero-ekitatearen alde lan egin gabe.



Aurreko guztiak badu zerikusia honekin: **esku sartzea vs eragitea**. Historian barrena, Mendebalde etengabe aritu da eskua sartzen, politika-, gizarte-, ekonomia- eta kulturaarloan izan diren era askotako aukeren bidez, bai eta garapenerako lankidetzaren bidez ere. Gure ustez, dagokigun ingurunean, ezinbestez bereizi behar ditugu esku sartzea eta eragitea. Eskua sartzea da talde edo pertsona batek beste norbaiten barruko kontuetan muturra sartzea, eta, horrenbestez, bestelakotasunarekiko begirunerik ez izatea. Izan ere, eskua sartzen duenak, normalean, menderakuntzako edo gutxiagotasuneko ikuspegi esplizitua edo inplizitua du besteari buruz, maila batean zein bestean. Aitzitik, eragiten dugunean begirunea erakusten dugu bestelakotasunarekiko, aniztasunarekiko, norbanakoaren nahiz taldearen burujabetzarekiko, eta, horizontaltasun-mailan kokaturik, ahaleginak egiten dira elkarrekiko eraginak izateko.

Lan egiten dugun ikuspuntua definitzea ezinbestekoa da, elkarrekiko begirunean, itunean eta horizontaltasunean oinarritutako harremanak sortzeko. Bestalde, garapenerako gobernuz kanpoko erakundeek nahitaez hartu behar dugu jarrera politiko bat lantzen ditugun gaiei dagokienez, eta alde batera utzi behar ditugu jarrera paternalistak, gurekin lanean aritzen diren erakundeekin trukeak izateko oztopo direlako.

Lanean darabiltzagun balioen oinarrian badago jarduteko beste ildo bat, eta zerikusia du aniztasunarekiko begirunea erakusten duten **diskurtso kolektiboak sortzearekin**. Alabaina, horretarako ezin da inola ere desberdintasuna


justifikatu; aitzitik, desberdintasunetik aritu behar dugu zuzentasuna lortzeko. Era berean, ezagutza, trukea eta hausnarketa bezalako alderdiak landu behar ditu, abiaburuko osagai gisa.

Estrategien artean egongo den beste alderdi bat da etengabe aztertuko direla **esku hartze sozial eta politikoek emakumeen bizitzan, beren erakundeen eta mugimendu indigenaren baitan, eta emakumeen mugimenduan dituen ondorioak**. Hortaz, adierazleak eta azterketa, plangintza, monitoretza eta ebaluazioa egiteko sistemak prestatuko dira, hartara, ondorioak eta eraginak zehaztu ahal izateko, hain zuzen, emakumeen jarreran, emakumeek gizonekin duten harremanean eta herrien egoeran izan diren aldaketak ikusteko.

Zati hau amaitzeko, garapenerako lankidetzak eta hezkuntzak, beharrezko proiektua izan beharrean, ezinbesteko prozesu bilakatu behar dute, eta konpromiso politiko argiak behar dira. **Paradigma eta jarduera berriak** sortzeko prozesuak bultzatu behar dira, alabaina, aintzat hartu behar da, batetik, aniztasuna eta genero-ekitate babestu behar direla, gertaera onuragarriak eta beharrezkoak direlako, eta, bestetik, emakume eta gizon indigenekiko begirunea izan behar dela, eta haiek izan behar dutela genero-desberdintasunik gabeko mundu bidezkoago bat eraikitzeko egin behar diren aldaketen protagonistak.

Estrategiak...

Estrategiak helburu orokor bat edo batzuk lortzeko elkarren artean lotutako ekintza eta prozesu desberdinak dira. Zentzu horretan eta gaur egungo egoera kontutan hartuta, honako helburu estrategiko hauek planteatzen ditugu herri indigenekin genero-ekitatearekin prozesuan lan eraldatzaile bat egiteko:



- Herri indigenen bizitzarekiko indarrean dagoen ereduak dituen **on-dorioak erakutsi eta salatzea**, baita inplikaturik dauden aktore desberdinena ere (IPARRALDEAN EGITEN DUGUN LANA)
- Justizia soziala eta pertsona zein herri guztien eskubide indibidual eta kolektiboak sustatzeko, indarrean dagoen sistemaren aurrean, **eredu sozial, politiko, ekonomiko eta kultural alternatiboak bultzatu**. (TOKIKO ELKARTEEKIN ETA MUGIMENDU SOZIALEKIN LANA HEGO ETA IPARRALDEAN)

- **Emakume indigenek bizi dituzten genero ezberdintasunak eraltzatzzen lagundu**, beti ere euren kultura ezagutu, errespetatu eta baloratzuz baina emakume bezala dituzten eskubideak oztopatzen dituzten alderdi kulturalak zalantzan jarriz (GENERO-EKITATEA)

Helburu horiek lortzeko 4 dira gure lana bideratzen duten ildo estrategikoak:

- Eraldaketa soziala, politikoa eta ekonomikoa bilatzen duten prozesuak laguntzea **Giza Eskubideen Ikuspegian oinarrituta**.
- **Bizitze Onaren** paradigma bultzatu eta gauzatzea eta beste paradigma alternatibo batzuekin izan dezakeen loturan sakontzea (desazkundera, elikadura burujabetza, kontsumo arduratsua, ekonomia feminista, ondasun komunak, etab.).
- Euren eskubideen aitortza eta gauzatzerako herri eta erakunde indigenen **erabateko partehartzea bultzatu tokian tokiko eta nazioarteko erabakitze guneetan**.
- Gure erakundearen **eragin politikorako ahalmena eta partehartzea areagotzea** giza eskubide indibidual eta kolektiboen defentsan lan egiten duten sareetan

Planteamendu hauen baitan eta zehazki, ondorengo kontuak azpimarratu nahiko genituzke:

- **Herri Indigenen lurralde-eskubideen eta baliabide naturalen kontrolaren urratzeak salatu** eskubide horien aitortzea, errespetua eta gauza-



tzea sustatzen duten ekintzen bitartez. Erakunde indigenak lan honetan ere lagundu.

- Tokiko erakunde indigena kideetan **genero-ekitatea instituzionalizatze**ko prozesuak indartu.
- **Nazio anitzeko estatuak eraikitze**ko prozesuak bultzatu eskubide kolektiboak gauzatu ahal izateko esparru gisa
- **Koordinazio esparruak sustatu** maila lokalean, eskualde mailan eta nazioartean.
- Herri indigenen eskubideen **aldarrikapenak ere gurera ekarri** eta horretarako eragin.

- **Hego-Hego truke espazioak eta Topaketak sustatu** inplikazio eta koordinazio politikoa sustatzeko herri indigenen eskubideen aitortpena eta gauzatzea lortzeko.
- Mugimendu indigena eta bere erakundeak indartzeko **formakuntza politikorako prozesuak bultzatu**, beti ere eskubideak gauzatzeko nazioarteko tresnen baitan.
- **Herrien burujabetza** eta euren egitura sozial, politiko, ekonomiko eta kultural propioa eta alternatiboak bultzatu.
- Emakume antolatuen edo feministen mugimendua bultzatu **harreman patriarkalak, arrazistak eta sexistak zalantzan jartzeko** euren jendarte, komunitate eta herrietan
- Kapitalismoaren aurrean (TLC-ak, AdA-ak, megaproiektuak...) gure ingurune hurbileko mugimendu sozial eta herri indigenen sare zein mugimenduen arteko **artikulazioa eta elkarrizketa sustatu**.

Azkenik, aurreko puntuetan beti ere genero-ekitatearen ikuspegitik lan egi-teaz gain, badaude emakume indigenekin lan egitean ezinbestekoak diren jorratu beharreko zenbait gai konkretu:

- **Emakumeen autonomia fisikoa defendatu** genero-ekitatean aurrera egiteko elementu nagusi bezala. Horretarako gure indarrak ugalketa eta sexu eskubideetan eta indarkeria matxisten kontrako borrokan jarriaz.

- Horrez gain, **bereziki indarkeria matxistak eta emakumeekiko beste bazterkeri mota batzuk salatu** eta euren kontra borroka egin.
- Maila lokalean, eskualde mailan eta **maila kontinentalean emakume indigenen mugimentuarekin y mugimendu feministarekin lana bultzatu**.
- **Emakume indigenen lidertza sendotu** epe luzerako formakuntza ekin-tza jasagarrien bitartez. Horrek ahalduntze indibiduala eta batez ere kolektiboa sustatuko du eta horrela komunitate indigenek emakume lider indigenak aldaketarako agente bezala aitortuko dituzte.
- **Emakume indigena eta beste erakunde eta mugimendu batzuen arteko aliantzen sorreran lagundu** euren arteko komunikazio kanalak ezarriz.
- **Emakume indigenentzako programa, politika eta lege espezifikoak zabaldu eta bultzatu** instituzioetan hedatu eta benetan bete daitezen.



| Glosarioa

ARRAZA. Osotasunean zentsuragarriak diren korrante politikoei bide eman dien erabilerarik gabeko kontzeptua. Giza espeziea irizpide biologikoen arabera sailkatzen du ikuspuntu handiuste zientifiko batetik eta bidegabekeria nabarmenarekin, zeinetatik giza talde ezberdinen arteko gailentze edo gutxies-te eskala bat deribatzen den.

ARRAZAKERIA. Kategorizazio biologikoaren zehaztapen politiko edo biologikoa arrazakeria da, *"fenomeno dinamiko bat bezala, islatzen den gizartean sortutako aldatetekin bat eraldatu eta moldatzen dena. Adiera esplizituak edo zoliak izan ditzake. Kasu askotan, arrazakeriaren adiera esplizituak desagertzten direnean haien existentzia ukatzeko joera ematen da (heckt: 2004). Arrazakeriak, ideologian bihurtuta, desberdintasunen ordena sozial bat natural bezala aurkeztea bilatzen du (Stolcke 2000:47)" (Aura Cumes)*

Ondorioz, arrazakeriak, zapalkuntza eta diskriminazio bezala ulertuta, historikoki eta gaur egun ere giza talde zehatz bateko kideak menderatzen

dituen harreman, estruktura eta instituzio sozialen multzoari egiten dio erreferentzia. Arrazakeria ez da ideologia bakarrik, basikoki ideien mar-koan sortzen eta ugaritzen diren aurreiritziak bezala. Era berean, ez da jarrera indibidual edo isolatua, diskriminazio ekintza zehatzak izan litez-keen bezala. Aitzitik, arrazakeria zapalkuntza sozial eta kolektibo jarrai bat da.

Herri indigenek historikoki arrazakeria sufritu dute, eta, gaur egun ere, ko-kuak dauden gizarte nazional gehienetan pairatu egiten dute. Era espli-zitu edo zolian, egunerokoa konstante bat da oraindik.

DUALTASUNA – OSAGARRITASUNA. Dualtasunaren ideia ez da herri indige-netan bakarrik agertzen, izan ere, emakume eta gizonezkoen arteko diko-tomia hau pentsamendu feministak erabilia izan da hortik sortutako des-berdintasunak azaltzeko.

Era honetan, herri indigenentzako, eta bereziki testuinguru amerikarrean, dualtasuna eta osagarritasuna printzipio idealetan bihurtutako kontzep-tuak dira, armonia, oreka eta errespetu gisa itzul litezkeenak. Berauen ga-rrantziaren erroa emakume eta gizonak unibertsoaren parte integral bezala ikustea onartzen duela da, elkarren menpeko eta harekin, Tania Palenciaren hitzetan. Ikusmolde honek, gaur neurri handi batean politikoa denak, bere sustraiak filosofia indigena ezberdinetan hondoratuta ditu, nagusiki, kolo-nizatu aurreko garaia izan zela parekidetasunaren eta emakume eta gizo-nen arteko osagarritasunaren loraldia esatean bat datozelarik, ondorengo prozesuetan kargatuz desoreka ekarri duen mendebaldeko dominazioa eta emakume eta gizonezkoen artean haziz doan desberdintasuna.

Alabaina, prozesu kolonialek desberdintasunaren handitzea ekarri dutela egia den bezala, aurreko denbora tarteetan osagarritasuna desberdintasun unitate gisa osatzen zela ere egia da. Osagarritasuna ez zen elkarrenga-

nako bidezko ekarpen eta aitortzan oinarritzen, orduan ere, emakume eta gizonezkoek desberdin baloratutako lanak izaten baitzituzten (Tania Pa-lencia).

Emakume indigenek posizio ezberdinak dituzte osagarritasunaren kontzeptuaren (teoria eta praktika) gainean: beronen balorea zorrozki ukatzen duten horiengandik hasita; kontzeptuaren esanahia berrezartzea proposatzen du-ten beste horiengandik igaroz genero harremanak benetako osagarritasune-rantz eraldatu daitezten; edo, beste batzuek, diskurtsoaren balio estrategikoa onartu eta beronen koherentzia eskatzen dute, generoen arteko botere ha-rremanen definizio zehatzean haien ekarpena baloratuz.

Interesgarria da kontzeptu hau berrartzea, herri indigenen kultura propioari baitagokio, eta bertatik abiatuta beronen analisisan sakontzea, eta generoa-ren bidezkotasunarekiko kointzidentziak eta diferentziak ikustea. Hausnar-keta honetan ere ikusgarri bihurtu ez direla kontzeptu berdinak, sinonimoak, egoera batzuetan osagarritasunaren lanaz hitz egiten baita bidezko generoa lortzeko egindako lanaren ordezko gisa, eta modu egokian erabiltzen ez ba-dira existitzen diren genero desberdintasunak sendotu egin litzake.

ETNOZENTRISMOA. Gizarte jakin baten joera propioengandik ezberdinak di-ren kultur formak ukatzean oinarritzen den jarrera kolektibo bat izendatzen du (moralak, sozialak, erlijiosoak, estetikoak...). Kultur aniztasunaren gai-tzespena suposatzen du. Etnozentrismoaren modu zoli bat kultur aniztasu-naren aitortzan oinarritzen da, beti ere hierarkizatua bezala ulertzen bada. Eszenatoki honetan zuzenean eragiten digun bariante bat "eurozentrismoa" deiturikoa da, mendebaldeko kultura besteen aurrean ukatze maila horretan edo egoera hierarkiko handiagoan posizionatzera datorrena; hemendik existentzia eta egoera aztertuko da, garapen maila barne, baita gainontzeko kulturei dagozkien eskubideak ere. Dokumentu honetan arreta jarri behar

da eurozentrismoan, oso modu zoli eta barneratuan, nagusi izan baita garapenerako kooperazio teoria eta praktikaren ikuspegi askotan; eta, ondorioz, garapenerako heziketak ekintza eremu zabal bat du ikuspegi eta ekintza horiek lehengoratzeko.

ERLATIBISMO KULTURALA ETA ARRAZIONALISMOA. Erlatibismo kulturaletik, jarrera unibertsaltasunaren kontrakoa da, eta sinismen orok, espresio orok bere testuinguruaren baitan soilik duela balioa eta esanahiaren ustea du abiapuntu. Hortaz, ez da posiblea kanpotik aztertu eta ondorioak ateratzea.

HERRIA. Eztabaidatutako kontzeptua da, baina herri bat eskubide kultural, sozial eta historiko berezien aitortza exijitzen duen talde etniko bat dela adostuz ebatzi liteke.

IDENTITATEA. Identitatearen kontzeptua herri indigenentzako haien existentziaren harri angeluar bat da. Kulturaren osotasuna da (sinesmenak eta ondare material zein materiagabeak) herri gisa nortasuna posible bihurtu eta beste batzuen aitortza ahalbidetzen duena, eta hau lurraldean bertan soilik izan daiteke bideragarri, osotasun hori jaio eta garatzen den tokian. Gainera, identitatea kontzeptu klabeetako bat da generoaren identitate indibiduala definitzeko orduan, eta baita kolektibo baten parte izateko kontzientzia hartzean ere.

Nola eremu indibidualean hala kolektiboan, nortasuna elementuen etengabeko eraikuntza prozesu baten emaitza da, jatorria genero bati atxikitzen diona, talde bati. Era honetan, beti azalduko da norabide bikoitzean: batetik, norbera parte izan, topatu edo aitortzean (nire gorputza, nire adina...); eta, bestetik, norbera besteen parte izatean, topatzean eta aitortzean (gure gela, gure generoa...). Indibidual zein kolektibo mailan, identitatea beste pertso-

nen inguruan definitzen da, propioa indartuz gainontzekoen diferentzien aurrean.

KULTURA. Antropologiatik, Kultura sinesmenen eta ondare material zein materiagabeen osotasuna da, giza talde bati eraikuntza eta nortasuna ematen diona, herri bati. Definizio honek giza bizitzen ikuspegiak osotasunean integratuko lituzke, mundua ulertzeko modutik pertsonen artean harremantzeko dugun sistemara, gure sinismen eta ondare materialetatik pasatuz. Hala, desagertzen den kultura bakoitzarekin ezagutzari ate bat gehiago ixten zaio, bizi garen mundua ikusteko, ulertzeko eta azaltzeko modu ezberdin bati. Beste elementu klabeetako bat kulturak estatikoak ez direla ulertzea da, etengabe daudela eboluzionatzen eta garatzen.

MATXISMOA. *Jabetza patriarkatuaren espresibidea, gizonen aldetik emakumeen (eta femeninoaren) baliogabetze sakonean azaltzen dena, objektu sexual gisa erabiltzean eta indarkeria baliatzean haien gainean daudela baieztatzeko. "Macho" kontzeptuak, hortik eratorri da "matxismoa", gizonen arketipoetan oinarritutako adiera biologikoa du (Gil, 2003: 1), geneetan eramatzen dela suposatzen dena. Hortik dator (matxismoak) generoaren eraikuntzan argudio biologikoak erabiltzea (Pop, 2000:1), emakumeak naturalki fisikoki eta intelektualki ahulagoak direnaren sinesmena defendatuz, eta, hortaz, gizonezkoen babes iraunkorra behar dutela ere. Azken finean, laburbilduz, hemen ukatu behar dena gizonezkoek emakumeenganako duten ustezko "gailentasuna" da, bidezko generoaren eraikuntza erreala izateko (Aura Cunes). Beharrezkoa da nabarmentzea nola arrazakeria hala matxismoa elementu zentral bilakatzen direla emakume indigenen gaineko dominazio sistema bermatzeko, egungo estruktura politiko, sozial eta ekonomikoetan txertatutako zapalkuntza modu bilakatu.*

GENERO IKUSPUNTUA ETA BIDEZKO GENEROA. Generoa kontzeptu kultural eta antolamendu sozial bat da, emakume eta gizonen arteko diferentzia biologikoetan oinarritzen dena, sexuen arteko botere harremanak eta desberdintasun estrukturala agerian utziz, beronen agerpenak bizitza sozial eta pribatuaren esfera guztiak harrapatzen baititu.

Genero kontzeptutik harago, "*generoaren perspektibak ez du bakarrik kategoria honetako potentzial analitikoa ukitzen, potentzial politikoa ere hartzen du, errealtatearen eraldatzailea. Ikuspegi honetatik, generoa ez da emakumeak munduan nola dauden aztertzeko tresna soila; genero harreman bidezko eta justuen eraikuntzaren aldeko konpromisoa exijitzen duen proposamen politikoa ere bada hein batean*" (Clara Murguialday)

MUNDU-IKUSKERA. Mundu-ikuskerak, nahiz eta orokorrean herri indigenei erreferentzia egitean aplikatu, gizarte osoarena da berez, giza talde guztiak baitute unibertsoaren dinamikaren, edukiaren eta formaren errepresentazio multzo bat: bere espazio eta garaien propietateak, bertan aurkitzen diren izaki motak, haien jatorria eta gerta litekeena azaltzen duten printzipio edo potentziak.

Bistan denez, mundu-ikuskerak suposatzen duen unibertsoaren ordena horretan, gizakiak errepresentazio horrekin ezartzen duen harremana ere kokatzen da, eta honek hein handi batean taldeko kideen arteko harreman propioak arautzen ditu.

Kaqla emakume maien Guatemalako erakundeak nabarmentzen duen bezala, mundu-ikuskerak "*egunero bizitzeko balio du, gure egunerokotasuna gidatzeko, ikuspuntu horrekiko koherentea izan behar da hortaz. Mundu-ikuskerak erreala, zehatza eta posiblea den zerbait da, orain bizi eta goza dezakeguna, ez da alegiazko gauza bat*".



MUGARIK GABE

www.mugarikgabe.org


¿Qué mundo queremos?
de seres, y no de teneres
de mujeres
ez edukitzeak,
osetzen dutena,
libres

Zure ekarpenari esker lanean jarraitzen dugu.

Mugarik Gaberekin kolaboratu dezakezu
urteroko kuota batekin,

diru dohaintza puntualekin edo elkartasun legatu batekin.

Horrela, hezkuntza eta lankidetzarekin bitartez,
persona guztientzako justua den mundu baten alde
edertzen egiten duzu.



Diru-sartzeak web gunean edo honako kontuan:

LABORAL KUTXA ES71 3035 0083 22 0830701234

Gran Vía 1 (Bilbao)